

3seuskadi

EREDU MISTOKO ESPERIENTZIAK MAPATZEA: ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO GIZARTE ZERBITZUAK HORNITZEKO LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALERAKO ESPERIENTZIEN AZTERKETA

2022

Proiektuaren proposamena



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Aurkibidea

SARRERA	3
MARKOA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
AURREKARIAK	8
PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK	9
METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA	11
BIBLIOGRAFIA.....	13

SARRERA

Gure xedea lankidetzaren publiko-sozialaren esperientzien lehen mapatzea egitea da, gizarte-zerbitzuen arloan erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko **lankidetzan** aritzen diren Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko (aurrerantzean, EHSS) erakundeak identifikatu eta aztertzeko.

Horren bidez, elementu gehiago eskaini nahi dira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (aurrerantzean, GZES) zerbitzuen horniduran (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza) **lankidetzaren** publiko-privatuko eredu mistoaren hedapena eta sendotzea jarraitu eta ebaluatzeko.

Eredu mistoa erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko administrazio publikoen eta ekimen pribatuko erakundeen arteko lankidetzaren gisa ulertu behar da oro har, baita Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala osatzen dutenak ere, zehazki.

Hala definitzen da EGZSren eredu mistoa Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 legearen 5. artikuluan. Hau da, titulartasun publiko eta pribatu itundua duten prestazioek, zerbitzuek eta ekipamenduek osatzen dute. Eta, definizio horren arabera, legearen 5. Tituluak kontzertu-erregimena (kontzertu soziala), hitzarmenak eta kontratazio publikoa ezartzen ditu Euskadiko administrazio publikoen eta ekimen pribatuaren arteko erlazioa artikulatzeko modu gisa.

Bestalde, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 legearen arabera, esku-hartze sozialaren arloko (gizarte-zerbitzuak eta espazio sozio-sanitarioak, sozio-laborala, sozio-hezitzailea...) lankidetzaren oinarria dialogo zibilaren printzipioa da. Printzipio horrek esku-hartzearen hartzaileei beren erakundearen bitartez politika publikoaren fase guztietan parte hartzeko eskubidea aitortzen die, baita gauzatzeko fasean ere, sistema edo espazio bakoitzaren araudi erregulatuak ezartzeko.

Azkenik, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Sustapen Estrategiak biltzen duen moduan (aurrerantzean, EHSSSE), *“elkarlan publiko-sozialak bidezko gizartearen eta gizarte solidarioaren, berdintzailearen eta kohesioaren, demokratikoaren eta parte-hartzailearen bermea izan behar du, guztiei on egitera zuzenduta eta pertsonen aldeko apustua eginda*. Beraz, denbora batez erantzukizun publikoa finkatzea eta behar sozialei emandako erantzunetan, bereziki esku-hartze sozialaren arloan, gizarte zibilaren esku-hartze aktiboa eskatzen duen gizarte- eta garapen-ereduaren baitan oinarritzen da”.

MARKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

1.1. Araudi mailako esparrua

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/ 2008 Legea¹ eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren maiatzaren 12ko 6/ 2016 Legea² dira proiektu honen esparruak.

Gizarte-zerbitzuen legeko 5. artikulua araberan, EGZS mistoa da, bigarren atalean aipatzen baitu ekimen publiko eta pribatuko (itunpekoa) prestazioek, zerbitzuek eta ekipamenduek osatzen dutela, hirugarren sektorre sozialak eta gainerako ekimen pribatuek barne.

Nolanahi ere, lege horren 7.2 artikulua, erantzukizun publikoaren printzipioari buruzkoak, kudeaketa publikoaren prebalentzia ezartzen du ekimen sozialaren bitartez. Gizarte-ekimen hori, 7. artikulua, i hizkian, irabazi-asmorik gabeko ekimenarekin identifikatzen du, hau da, 6/2016 legeak positiboan ekimeneko gizarte esku-hartzeko erakunde gisa definitzen duen Hirugarren Sektorre Sozialarekin.

Idea hori EAEko Gizarte Zerbitzuen hurrengo Plan Estrategikoetara eramaten da; izan ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko 35.3 artikulua ezartzen du plan estrategiko horiek EGZSko zerbitzuen prestazioetan sektorre publikoen eta pribatu itunpekoen parte-hartzeari buruzko orientazioa txertatu beharko dutela.

Gainera, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko 7. artikulua dialogo zibilerako printzipioa definitzen du eta printzipio horrek aitortzen du hartzailleek dagozkien politika publikoetan parte hartzeko eskubidea dutela ordezkatzeko dituzten erakunde bitartez.

Parte-hartze hori, legearekin bat etorritik, fase guztietan gauzatu behar da (diseinua, exekuzioa, jarraipena eta ebaluazioa). Exekuzioa da zerbitzuen horniketaren parte hartzeko aukera ematen duen fasea, gizarte-zerbitzuen legeak aipatzen duen lerro berean.

Hortik aurrera, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko III. kapituluak lankidetzaren eta elkarlana banakatzeko duen Hirugarren Sektorre Sozialaren eta administrazio publikoaren arteko esku-hartze sozialaren arloko politiken exekuzioan. Eta zehazki, erantzukizun publikoko sistemetan (gizarte-zerbitzuak eta enplegurako sarbidea sustatzeko zerbitzuak) eta sistemen arteko elkarrengaitze-eremuetan (soziallaborala, soziohabitazionala, sozioedukatiboa, soziosanitarioa, soziojuduziala, soziokulturala eta beste batzuk).

¹ 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2011-15726

² Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

Atal horrek, lankidetzaz gain, erantzukizun publikoko sistemen kooperazioa eta sistemen arteko interakzio-sistemak (10. artikulua) jorratzen ditu, lau arlotan zehaztuta. Horietatik hiru gero zehaztuko ditugu: a) erantzukizun-publikoko sistemen eta sistemen arteko interakzio-espazioen kudeaketa (11. artikulua); b) erantzukizun publikorako zerbitzuen hornidura (12. artikulua); c) kasuaren erreferentzia- eta koordinazio-funtzioak, administrazio erantzuleak eskuordetzen du araudian ezarrita dagoen kasuetan (13. artikulua); eta esku-hartzeko prozesuan zehar, pertsoneri eta familiei laguntza soziala emateko parte-hartzea.

Eta azkenik, 14. artikulua administrazio publikoek erakundeekin duten elkarlanean oinarritzen da, haiek garatutako interes orokorreko beste jarduera sozial batzuetan, baina erantzukizun publikotik at.

Erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko lankidetzaz publiko-privatua eta publiko-soziala artikulatzeko moduei dagokienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak hiru xedatzen ditu: kontzertu-erregimena, irabazi asmorik gabeko erakundeekin hitzarmenak eta kontratazio publikoa.

Hala, Euskadiko administrazio publikoek EGZSko katalogoko zerbitzuen kudeaketa zuzenaren alde egiten ez badute, zeharkako kudeaketa egin ahal izango dute zerbitzuen izaera edo izaera berritzailea dela eta kontzertu-erregimena erabili ezin badute (71.1 artikulua), eta ustezko batzuk irabazi asmorik gabeko erakundeekin egindako hitzarmenentzat gordeko dira (69. artikulua).

1.2. Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala sustatzeko estrategia (EHSSSE)

Zehazki, Estrategiak lau arlo horiek (6/2016 Legearen 10. artikulutik 13.era) aipatzen ditu esku-hartze sozialaren arloan eredu mistoko (lankidetzaz publiko-soziala) hedapenaren jarraipenari, bultzadari eta balorazioari buruzko 5 zenbakiko jarduketa deskribatzean, honela:

<<Eusko Jaurlaritzak, hala nahi duten Euskadiko beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean, eta Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialeko erakundeek eta sareek esku-hartze sozialaren arloko sistemen artean elkarrekintza-eremuetan eta sistema desberdinetan lankidetzaz publiko-sozialaren (eredu mistoa) hedapena bultzatzeko, baloratzeko eta horri jarraitzeko ekintzak egingo dituzte, betiere, kantitateari eta kalitateari dagokionez Hirugarren Sektor Sozialeko erakundeen parte-hartzeari arreta eskainiz:

- a) erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarrekintza-guneetan;
- b) zerbitzuen horniketean (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza);
- c) erreferentzeari eta kasuaren koordinazioari (edonola ere, administrazio erantzuleak ordezkaturako parte-hartzea) dagozkion funtzioak egitean;
- d) Laguntza soziala ematean eta arreta-sistemetara sartzeko zerbitzuetara bideratzeko, orientatzeko eta informazioa emateko jardueretan laguntza eskaintzean.

Hala, EGZSn EHSSko erakundeek duten parte-hartzea hemen eman daiteke:

- a) **Esku-hartze sozialaren** arloan, erantzukizun publikoko **sistemen kudeaketa** betiere, gizarteratzea, garapenerako lankidetzak, herritar guztien eskubideak aitortzea eta zaurgarritasun-egoera, bazterkeria-, babesik-eza, desgaitasun- edota mendekotasun-egoerei aurre egin behar dieten pertsonen, familien, taldeen edo komunitateen aldeko ekintza eraginkorra sustatzeko helburuarekin; eta arloan, politiken eta sistemen arteko **elkarrekintza-guneetan**: eremu soziolaboralak, soziohabitazionalak, sozioedukatiboak, soziosanitarioak, soziojudizialak, soziokulturalak eta beste batzuk.
- b) **Zerbitzuen hornikuntzan** (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza), prestazio hutsetik harago joango litzateke, eta erakundeek diseinuan, prestazioan edo kudeaketan, ebaluazioan eta hobetzeko proposamenetan hartuko lukete parte, unibertsaltasuna, elkartasuna, egokitzapena (kalitatea), efizientzia edo bestelako printzipioei erantzunez.
- c) **Erreferentziako funtzioak** eta **kasuen koordinazioa** egitean (esku-hartze sozialeko prozesuaren fase guztietan), erreferentearekin elkarlanean arituz. Parte-hartze hori izateko, aurretik, erakundeek esku-hartzea egin beharko dute, eta izaera bereziko jardura duten erakundeen kasuan, bi arauetan aurrez ikusitakoarekin bat etorrita.
- d) Esku-hartzeko prozesu osoan zehar pertsonen eta familiei **laguntza soziala** ematerakoan, eta, nolahi ere, jardueren hasieratik hartzaileekin kontaktua izanez, haiek baliabideekin harremana izan dezaten. Halaber, hasierako harrera, informazioa eta orientazioa eskainiko zaie eta EGZSrako zerbitzuetara bideratuko dituzte.

EHSS Eren 2021-2024 Legegintzaldiko planak 5. Jarduketa hori du txertatuta, eta garatzeko ekintzen artean daude oinarrizko informazioa bildu eta aztertzea sektoreko erakundeetara eta zerbitzuen arduradun diren administrazio publikoetara zuzendutako galdetegi errazten bitartez. Galdetegia aipatutako 4 arloetako (a, b, c eta d) esku-hartze sozialean erantzukizun-zerbitzuak hornitzeko lankidetzan aritzen diren EHSSeko erakundeen parte-hartzeari buruzkoa da.

1.3. EHSSren definizioa eta ezaugarriak


Proiektu honen testuinguruan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak biltzen duen **EHSSren definitiotik** abiatzen da. Honako hau ulertzen du: Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala *“gizarte-ekimeneko erakundeek osatzen dute, egoitza eta jarduketa Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak. Helburu nagusia da gizarte-ekimeneko jarduketan bidez gizarteratzea, garapenerako lankidetzeta eta zaugarritasun- edo bazterkeria-egoerei, eta desberdintasuna, babesgabetzea, desgaitasuna edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dien pertsonen, familien, taldeen edo komunitateen eskubideen gauzatze eraginkorra bultzatzea”*.

2020ko EHSSeko Liburu Zuriaren datuen arabera, 3.938 erakunde daude eta **% 23,3ren jarduera nagusia gizarte-zerbitzuen hornidurarekin lotuta dago**.

Erakundeen % 22,6k bazterketa-egoeran edo -arriksuan dauden pertsonak artatzen dituzte; % 15,1ek desgaitasuna duten pertsonak; % 5,4k babesgabetasun-egoeran daudenak; eta % 3,6k mendekotasun-egoeran daudenak edo mendekotasunean egoteko arriskuan daudenak. Horiek dira EGZSk artatutako lau kontingentziak.

Gainerakoen, hau da, erakundeen erdien baino gehiagoren jardueraren hartzaila nagusiak beste zaugarritasun- edo desberdintasun-egoera batzuk bizi dituzten pertsonak eta abar dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)




ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ARABERA. (%)



Erakundeen % 78,3k, zerbitzuak eskaintzeaz gain, sentsibilizazioarekin eta eskubideen defentsarekin lotutako beste funtzio sozial batzuk garatzen dituzte. Zerbitzuen hornikuntzaren bidez, erakundeek behar sozialei erantzuten diete eta baliabideak gerturatzten dizkiete beharrak dituzten herritarrei.

ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen % 25,6k erantzukizun publikoko zerbitzu-zorroetan aintzat hartutako zerbitzuak ematen dituzte (gainera, gehiengoek zorro horietan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ere ematen dituzte). Beste % 64,7k erantzukizun publikoko zorroetan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ematen dituzte.

AURREKARIAK

Euskadiko Hirugarren Sektoraren Sozialaren Behatokiaren “³Praktika eta esperientzia adierazgarriak eredu mistoan” txostenak kooperazioaren eta lankidetzaren publiko-sozialaren esperientziak jasotzen ditu, baita horiei lotutako jarduketaren adierazgarriak ere, helburu hauek hedatzen eta finkatzen jarraitzeko eta ebaluatzeko elementuak izateko:

- Lankidetzaren publiko-pribatuaren “eredu mistoa” eta, zehazki, publiko-soziala erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan.
- Euskadiko administrazio publikoen eta Euskadiko Hirugarren Sektoraren Sozialaren arteko lankidetzaren erantzukizun publikokoak ez diren interes orokorreko beste jardueraren batzuetan.

Proiektu hori EHSSSEren 5. jarduketarekin lotuta ere bazegoen eta EGZSren zerbitzuak hornitzeko erakundeek zituzten parte hartzeko lau arloak hartzen zituen erreferentziatzen.

Txostenean 4 kontingentziekin, 3 erakundeekin mailekin (tokikoa, aldundietakoa eta erkidegokoa), 3 lurralde historikoekin eta hainbat tamaina, izaera juridiko, arlo edo ibilbidetako EHSSeko erakundeekin lotutako (bazterkeria, mendekotasuna, babesgabetasuna eta desgaitasuna) 20 esperientzia eta jarduketaren adierazgarriak identifikatu eta aztertu ziren.

Txostenaren helburua izan da esperientzia bakoitzarekin lotutako eragileek egiten dituzten ebaluazioetatik abiatuta, EGZSrentzat, zerbitzuen hartzailentzat, horietaz arduratzen diren erakunde publikoentzat eta hornikuntzan parte hartzen duten hirugarren sektore sozialeko erakundeentzat erabilgarriak diren ikaskuntzak azaltzea.

³ Proiektuaren gaineko informazio gehiago <https://3seuskadi.eus/que-hacemos/practicas-y-experiencias-significativas-en-modelo-mixto/>

PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK

Aipatu dugun moduan, proiektu honen xedea lankidetzan publiko-sozialaren esperientzien lehen mapatzea egitea da, gizarte-zerbitzuen arloan erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko lankidetzan aritzen diren Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialerako erakundeak identifikatu eta aztertzeko.

Hala, lankidetzan publiko-privatuaren eta zehazki publiko-sozialaren “eredu mistoa” erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan hedatu eta indartzen jarraitzeko eta ebaluatzeko elementu gehiago lortu nahi dira.

Horretarako, eta aztergaia mugatze aldera, hainbat irizpide betetzen dituzten esperientzietan oinarrituko gara:

- Jarduketa-arloaren ikuspegitik, proiektuak Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema izango du ardatz.
- Zerbitzuen hornikuntzan lankidetzan gauzatzeko tresnen ikuspegitik, proiektuak hitzarmenak eta kontratuak hartuko ditu aintzat. Euskadin oraindik ez dago 12/2008 legean aurrez ikusitako itunik⁴.

Halaber, EHSSSEk eredu mistoaren jarraipenari, sustapenari eta hedapenaren balorazioari buruzko 5. jarduketan jasotzen dituen gizarte-politikan (esku-hartze soziala) parte hartzeko erakundeak eta sareak dituzten lau arloen arabera identifikatuko dira esperientziak.

- a) Erantzukizun publikoko sistemen kudeaketa eta sistemen arteko elkarrekintza-guneak.
- b) Zerbitzuen hornikuntzan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza).
- c) Erreferenteari eta kasuaren koordinazioari (edonola ere, administrazio erantzuleak ordezkaturako parte-hartzea) dagozkion funtzioak egitea.
- d) Laguntza soziala ematea eta arreta-sistemetara sartzeko zerbitzuetara bideratzeko, orientatzeko eta informazioa emateko jardueretan laguntza eskaintzea.

⁴Kontzertuaren figura oraindik egon ez arren, komeni da kontzertuak dekretu-proiektuaren oinarriaren gainean lan egiteko prozesuari buruzko gogoeta-espazioetan txertatzea.

HELBURUAK

• ERANTZUN BEHARREKO GALDERAK

1. Eredu mistoaren esperientzia askoren gaineko informazioa biltzea, proposatutako irizpideen arabera

- Lankidetzaren publiko-sozialerako zer esperientzia daude?
- Zein da esperientzia horien helburua?
- Zer eragilek esku hartzen dute?

2. Jasotako esperientziak aztertu eta baloratzea

- Lau arlotatik zein garatu dira?
- Zer lankidetzaren jarduerak eta prozesuak jarri dira abian zerbitzuak garatzeko?
- Zein izan dira emaitzak?
- Inplikaturako agenteek zer balorazio egiten dute?
- Jarduna erraztu eta zailtzen duten zer elementu identifikatu dituzte?

3. Lankidetzaren publiko sozialaren balioari buruzko gogoeta egitea eta finkatzeko eta hedatzeko bidean aurrera egiteko ildoak ezartzea

- Zer ikaspen ateratu daitezke hortik?
- Lankidetzaren zer ezaugarri hobetu edo indartu behar dira?
- Horretarako, zer elementu ezarri edo indartu behar dira?
- Kontzertu-erregimenak zer alderdirekin egin dezake ekarpena lankidetzarako tresna gisa?

METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Proposatzen den metodologiaren oinarria EHSSeko erakundeek eta zerbitzuen ardura duten administrazio publikoek online egindako galdetegiaren bidez lortutako informazioa da, eta bigarren mailako iturrietatik abiatuta dokumentazio lana egin da.


- **Online galdetegia** esploratzeko izango da eta erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko lankidetzan aritzen diren EHSSeko erakundeei eta horietaz arduratzen diren administrazio publiko erantzuleei zuzenduta daude. Esploratzeko galdetegi horren xedea hiru lurralde historikoetako erakundeen eta administrazio publikoen laginaren informazioa lortzea da, besteak beste, **dimentsio** hauek identifikatzeko: esperientziaren helburua, oinarriko ezaugarriak (eragileak, kontingentzia, kolektiboa, formalizatzeko instrumentua, iraupena, etab.), parte hartzeko esfera, balorazioa, ikaskuntzak eta hobetzeko ildoak.

Esploratzeko galdetegia denez, emaitzak ez dira zehatzak izango, eta ezin dugu bermatu eredu mistoan esku hartzen duten EHSSeko erakundeen eta administrazio publikoaren unibertsoarentzat adierazgarria denik. Hala ere, galdetegi esploratzailearen emaitzak erabilgarriak eta balekoak izango dira esperientziak mapatu ahal izateko informazio baliotsua lortzeko. Posta elektronikoaren bitartez online galdetegia egitea da proposamena, eta erantzuna hedatu eta motibatuzeko hainbat ekintza izango ditu, lagin egoki eta orekatura hurbildu ahal izateko.

- Hala badagokio, **weba arakatuz** identifikazio paraleloa egingo da. Bildutako informazioa onlineko galdetegi batekin osatzea da, betiere, proposamena esperientzien gaineko informaziora modu proaktiboan iristeko, online bilaketa sistematikoaren bitartez. Webgunea arakatzeko lan hori galdetegian lortutako emaitzen arabera dimentsionatu eta bideratuko da, osatu ahal izateko.

Emaitza gisa, bai online galdetegiaren bidez jasotako esperientzien mapatzea (webgunea arakatzearekin osatua), bai esperientzia guztien azterketa jasoko dituen txostena egingo da, balorazioa, ikaskuntzak eta eredu mistoa finkatu eta hedatzeko balizko ildoak biltzeko.

Hori kontuan izanda, proiektua lantzeko **laneko plan hau** proposatzen da:



BIBLIOGRAFIA

Euskadi. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/s08_0246.pdf

Euskadi. 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Euskadi. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

Eusko Jaurlaritza (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala sustatzeko estrategia*. Hemendik hartua: <https://www.sareensarea.eus/images/documentos/DocumentacionDeReferencia/Estrategia-de-Promocin-del-Tercer-Sector-Social-28-11-2017.pdf>

Eusko Jaurlaritza (2021). *Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala sustatzeko estrategia. 2021-2024 Legealdiko Plana*.